

Antzorrilleta ahozko transmisioaren lekuko

Maribi Unamuno Garate

Euskal Herriko Unibertsitatea
victoria.unamuno@ehu.eus

Abstract

Between 1965 and 1968, Teri Ibarrola recorded seven folk tales in two vinyl records with Columbia records. In this article we offer the text and voice of one of these tales: *Antzorrilleta*.

Laburpena

1965-1968 aldean, Teri Ibarrolak zazpi herri-ipuina grabatu zituen binilozko bi diskotan Columbia diskoetxean. Artikulu honetan horietariko baten testua eta ahotsa eskaintzen ditugu, *Antzorrilleta* izenekoarenak, hain zuzen.

Keywords: Oral transmission, folk tales, version

Gako hitzak: Ahozko transmisio, herri-ipuina, aldaera

1. Sarrera

Teri Ibarrola (1918-1987) aulestiarra zen jaiotzaz; haren aita Cesareo, dakigunetik, ipuin kontalaria, ipuin-zalea zen, eta bistan denez, alabak ongi ikasi zizkion ipuinok.

1964an eta 1965ean *Arantzazu* aldizkarian argitaratu zituzten, *magnetofon hartuta* han dinoenez, eta horren ondoren diskoan grabatu zituzten.

Euskaltzaindiak antolatutako¹ zenbait ekitalditan parte hartze arrakastatsua izan omen zuen; hauxe dio disko-azalaren barruko orrian, *Cuentos Vascos* izenaren azpiko testuan: *A la vez que autora, es una declamadora y recitadora de excepcionales cualidades, y como tal ha actuado con notable éxito en diversos actos y festivales organizados por la Academia de la Lengua Vasca.*

Gerora 1980-90 inguruan, Euskal Telebistan Jose Mari Iriondok aurkezten zuen programa baten elkarrizketatu zuen, mahai baten alde banatan aurrez aurre jesarrita, argirik gabeko hondo beltzean, hantxe errepikatu zuen Ibarrolak behin eta berriz *ipuina* hitza, [ïpuñek] berak zerabilen izendapena hartuta. Tamalez, Euskal Telebistan ez omen dago programa haren grabazioen arrastorik

2. Diskoen datuak

Batetik, 1960 aldean diskoa kantari lotutako baliabidea zelako eta bestetik, ipuinak eta kontakizunak ahozko transmisioaren bidea galtzen hasita eta liburuetan argitaratzeko bidea hartzen hasita zeudelako, ipuinok grabatzeari ezohiko ekintza deritzogu eta teknologiaren erabilera aurrerakoitzat dugu, hortaz, grabatzea herri-ipuina horien balioaren jakitun zenak hartutako erabakia izan zelakoan gaude.

Diskoak, garaian ohi bezala, kartoi meheko azalean zeuden, kasu honetan kolore horikoa, eta bertan inprimatutakoa, bai letra, bai argazkia, bai ilustrazioak, beltza zen. Azalean, erdian, figura obalatuaren barne, Teri Ibarrolaren argazkia zegoen eta honen azpian letra lodiz, gaztelaniaz, CUENTOS VASCOS inskripzioa eta erdiko irudi eta testuaren inguruan antolatuta ipuin bakoitzaren ilustrazioa eta izenburua, hauek ere gaztelaniaz: *El peine de la sirena. Baja abajo, negra!. Echar el ojo a alguna. Antzorrilleta. Las camisas de Peru. Ha muerto Peru. Peru en Londres.* Honek diskoari gaztelaniazko edukidunaren itxura ematen dio; azala eta kontraletik ezin daiteke ondorioztatu edukia euskaraz denik; euskararen oihartzun bakarra soma daiteke kontrazalean *Ibarrola'tar Teri* idaztean, deituraren idazkeragatik.

¹ Ekitaldion berririk ezin izan dugu aurkitu Euskaltzaindiko artxiboetan.



1 irudia: Diskoaren azala

Disko-azal berean ageri direnez grabatutako zazpi ipuinen izenburuak, azal bakarrean zeudela ondorioztatu dugu; azal horren barruan, 45 erreboluzioko binilozko disko biak eta orri zabal tolestua zeuden.

Orri horretan diskoen datu teknikoak zeuden idatzita, hala jakin daiteke Columbia diskoetxean grabatu zirena, SCGE 80863 eta SCGE 80864 identifikazioa dutena, zazpi ipuinen izenburua, ipuin bakoitzeko pertsonaiak eta euroi ahotsa jartzen dien pertsonen izenak, laburpena gaztelaniaz *Cuentos Vascos* izenburupean eta laburpena ingelesez *Tales in the Basque Language* izenburupean eta, ondoren, ipuinen izenak eta testuak euskaraz eta gaztelaniaz. Hau guztia tolestutako orriaren alde bietan.

Pentsa daiteke ipuinok gaztelaniara itzultzea, garaiko ekitaldi eta argitalpen guztien moduan, zentsuraren baldintza izan zela.

DETALLE DE LOS DOS DISCOS

COLUMBIA SCGE 80864	
BALTZA BERA (Baja abajo, negra)	{ Narrador P. Luis Villasante Peru Fr. Carmelo Aulestiarre Marixek Ibarrola'tar Teri
PERU'REN ARKONDARRAK (Las camisas de Peru)	{ Narradora Ibarrola'tar Teri Marixek Ibarrola'tar Teri Peru Fr. Carmelo Aulestiarre
BEGIA BOTA BATABATERI (Echar el ojo a alguna)	{ Narrador P. Luis Villasante Marixek Ibarrola'tar Teri Hijo Fr. Carmelo Aulestiarre
LAMIÑEAREN ORRAZIA (El peine de la sirena)	{ Narrador P. Luis Villasante Lamia Ibarrola'tar Teri Marido Fr. Carmelo Aulestiarre Mujer Ibarrola'tar Teri
COLUMBIA SCGE 80863	
PERU LONDRES'EN (Peru en Londres)	{ Narradora .. Ibarrola'tar Teri Peru Fr. Carmelo Aulestiarre Criado Fr. José Manuel Uriaguerrea Marixek Ibarrola'tar Teri
PERU IL DA (Ha muerto Peru)	{ Narrador P. Luis Villasante Peru Fr. Carmelo Aulestiarre Criado Fr. José Manuel Uriaguerrea Marixek Ibarrola'tar Teri
ANTZORRILLETA	{ Narradora .. Ibarrola'tar Teri Hija Ibarrola'tar Teri Antzorrilleta Ibarrola'tar Teri Padre Fr. Carmelo Aulestiarre Chico Fr. José Manuel Uriaguerrea

2 irudia: Diskoen eta grabatzaileen datuak

Bi diskoetan zazpi ipuin entzun zitezkeen; lehenengo diskoeko ipuinen izenak hauexek dira: *Peru Londres'en*, *Peru il da* eta *Antzorrilleta*; bigarren diskoan beste lau zeuden entzungai: *Baltza Bera*, *Peru'ren arkondarrak* (sic), *Begi bota batabateri* eta *Lamiñearen orrazia*. Ahots protagonista T. Ibarrola anderearena bada ere, L. Villasante, K. Aulestiarre eta eta J. M. Uriagereka frantzizkotarren ahotsak laguntzen dute elkarriketarako.

Disko-azaletako zein barruko orriko informazio idatziak ez du adierazten zenbait datu, esaterako, Donostiako Columbia diskoetxean grabatu ziren eta argitalpenaren urtea.

Columbia diskoetxea artean Donostian jardunean zebilen, eta hurbiltasunagatik ondoriozta daiteke hantxe grabatu zirela.

Argitaratze urtearen datua, zeharretara, X. Kaltzakortak (1992, 481 or.) eskaintzen duen Juan San Martinen aipamenetik atera dezakegu; honek 1979an *duela dozenaren bat urte* dinoenez, 1967aren bueltan kokatzen gaitu. Bestalde, *Arantzazu* aldizkarian 1964 eta 1965 urteetako aleetan argitaratu zituzten, hortaz, hauen grabazioa eta ezagutaraztea 1964-1967 urteen tartean koka daiteke; bete-betean, Arantzazuko lehenengo bilera eta bigarrenaren tartean.

Bizkaiko Lea Ibarreko *Jeurt!* aldizkari lokalean, 1984-1991 urteetan argitaratu zenean, saiatu ginen ipuinok zabaltzen, memoria kolektiboan berpizten. Aldizkaria Lea ibarrekoa izanda eta ipuinon sorrera ere bertakoa izanda, gune aproposa izan zitekeela iritzita, han *Jeurt!* leian hasita *Jeurt!/7*-ra bitartean argitaratu genituen. Argitalpen idatzia izanda, irakurtzean ipuinok memoria kolektiboan berpizten ziren eta hori, zalantza barik, kultura ondareari ekarpen interesgarria egitea zen; hala ere, herren geratzen ziren, zeren grabazioak ezin zitezkeen entzun.

1992an binilotik zintara grabatutako alea hartu nuen eta harrezkero gordeta izan ondoren, 2014an pasatu nituen .wav formatura eta, azkenik, ahotsezko dokumentu moduan heldu zaizkigun haiei modu berean argitaratzea dagokielakoan, grabazio hauek merezi dutela argitalpen hedatuagoa eta hartzaile gehiagorengana hel daitekeena eta batez ere, merezi dutela grabatu zituztenen ahotsean entzuteko aukera izatea sinetsita, kaleratzeari ekingo diogu.

Ekarpen honetan, bat beharrean, *Antzorrilleta* izenekoa aukeratu dugu. *Antzorrilletaren* testuari dagokionez, disko-azalaren barruko orrian idatzita ageri zen euskarazko atala jarri dugu irakurgai, eskaneatuta; ondoren testu hori transkribatuta eta, azkenik, testu bera grafia gaurkotuan eskaintzen da. Ahotsari dagokionez, *Antzorrilleta* ipuina dago entzungai, Teri Ibarrolak egiten ditu emakume ahotsak, Anaia Karmelo Aulestiarrek aitarena eta Anaia Jose Manuel Uriagerekek mutilarena.

3. Herri-ipuinen izaera eta xedea

Mittoa, herri-ipuina eta maitagarrien ipuinen arteko banaketa ez dela argia dio Bettelheimek. *Úpuñek* zeritzen Teri Ibarrolak berak kontatzen zituenei eta *herri-ipuinak* deritze Kaltzakortak²; izendapen bat aukeratu beharra dela-eta, azken hau erabiliko dugu.

Autore jakinik gabeak dira. Ahozko tradizioan, nork asmatu dituen jakin gabe, mendez mende eta ahorik aho heldu dira guganaino, XXI. mendera arte. Denbora ezezagunean hasi eta gaur arteko bidean, T. Ibarrola ahozko transmisioaren katearen azken begietarikoak izan da.

Herri-ipuinetako gizartea, familia eta bizimodu eredu edo pertsonaiak ez datoz bat gaurko gizarte eta bizimodu ereduekin, baina, zein ipuinetan gertatzen da bada hori? Errege-erreginak gazteluetan, printzeak zaldi ganeetan, animaliak hitz egiten... fantasiak ez du mugarik; fantasiaren eta errealtatearen arteko lotura entzule bakoitzaren esku dago.

Pertsonaiak gatazkak izan ohi dituzte eta gatazka horiek konpontzea lortu ohi dute, horixe da garrantzitsua entzuten duen umearentzat³, eta agian, baita kontatzen duen nagusiarentzat ere.

Ipuina esatean berehala hartzaile umea irudikatu arren, nire ustez, umeak zein interesa duen edozein nagusi izan daiteke. Gaurko gizartean, umeak eta batez ere, hezkuntzarekin zerikusi duten profesionalak dira hartzaile potentzialak, zeren etxeetan ipuinak kontatzen emateko denbora, dirudienez, agortuta dago; orduan bada, irakasle eskoletako ikasleentzat, eskoletako maisu-maistrentzat, literatura-ikerlarientzat, hizkuntzalarientzat, dialektologoentzat zein fonetistentzat interesgarri izan daiteke grabazio hau.

Ekarpen honen xedea ahozko tradizioetik, haria eten barik, heldu zaizkigun herri-ipuinak berreskuratzea eta ezagutaraztea da, gaurko baliabide elektronikoen bitartekotza erabilia.

4. *Antzorrilleta* eta honen kide batzuk

Antzorrilletak inguru hurbilean kiderik ote duen begiratuta, Euskal Herrian, Espainian, Frantzian Ingalaterran eta Portugalen behintzat, aldaerak aurkitu ditugu.

Aipatzen ditugun hauetan denetan agertzen da gai bera, maitasun filiala, aita-alaben artekoa; denetan da aita alabek dioten maitasunaren berri jakin nahi duena, galdera hori da abiapuntu; hiru alabetarik txikienaren

erantzuna da aitak gustuko ez duena eta denetan da elkar ongi ez ulertzea korapiloa sortzen duen kausa.

Sekuentziak, funtsean, berberak dira: Aita eta hiru alaba. Aitak alaben maitasunaren berri jakin nahia. Erantzun diferenteak jasotzea. Alaba gazteenaren disgustuko erantzuna zigortzea. Zigorra dela-eta, etxetik urrundu behar izatea. Pertsonaia laguntzailea, emakumea, agertzea. Printze salbatzailea azaltzea. Eratzuna edo domina edo elementu eksklusibo eta identifikatzailearen baten jabetza lortzea. Zigortuaren onberatasuna nagusitzea. Printzea eta zigortuaren arteko maitasuna sortu eta adieraztea. Ezteguak ospatzea. Aita gonbidatzea. Egia gailentzea.

Euskal Herrian bertan, bada beste aldaera bat *Antzorrilleta* baino zatia luzeagoa: *Mari Xor* ipuina, beste 21 ipuinekin batera, Joxe Arratibelek egin zuen ezagun 1980an *Kontu zaharrak* liburua argitaratu zuenean eta entzungai dago online, Pako Eizagirrek narratuta.

Gaztela herrira begiraturuz gero, erregea eta haren hiru alaben ipuinaren aldaerak aurki daitezke *Las tres hijas del rey* izenburupean.

Frantzia aldera begiraturuz gero, *Pour une pincée de sel* eta *Le Bon Sel* ipuinak, aldaerak badira, ahozko tradizioetik jasota, Véronique Pédrero ipuin kontalariaen webgunean; honek aldaera bi eskaintzen ditu, eurotarik bata, *Pour une pincée de sel*, luzeagoa eta edukietan *Mari Errauskin* ipuinarekin erlazioa duena, hain zuzen ere, *version catalane de Cendrillon* dela dio Pédrerok, bestea laburragoa, *Antzorrilleta*rengandik hurbilago dagoena.

Portugalen ba da *O rei e o sal* ipuina, irakurgai aurkitu dugu interneten. Armando C. Sousak sinatuta dago eta berak dino: *historias que me eram contadas en criança*

Ingalaterrara begira, Shakespearek idatzitako *Lear erregea* dramarekin duen antzekotasuna bistakoa da.

Lear erregea da aipatu ditugun aldaeretan luzeena eta besteak ez bezala, autore jakina du, baita argitaratze-urtea ere, 1606an argitaratua da eta Erdi Aroko literaturan oinarrituta omen dago. *Antzorrilletan* agertzen ez diren azpi-gaiak eta gizarte diferentearen oihartzunak ditu, hala nola, nobleziako pertsonaiak, erresumak, gazteluak eta aberastasunaren seinaleak.

Irakurri ditugun beste aldaeretan aita erregea da eta salbatzailea printzea eta, *Lear erregea* salbu, ez dago hain esplizituki markaturik gizartearen eta inguruko aberastasunen presentzia. *Antzorrilleta* herri-ipuinean ordea, aita aita da, ez da erregea, eta printze salbatzailea izan ezik, beste pertsonaiak jende xumea dira. Esan daiteke *Antzorrilleta* kontatzen duen gizarteari egokিত dagoela.

Antzorrilleta berdin izan daiteke *Lear erregea* dramaren egokitzapena, haren aldaera xumea, edo beste edonondik jasotako ipuina edo istorioaren kontakizuna. Norengandik, nondik edo noiztik datorren jakitea ezinezko da, generako herri-ipuina bezala. Edozelan

² Kaltzakorta, X. (1992). Bizkaiko herri-ipuina idatziak, *Euskera XXXVII* (2. aldia): 447 or.

³ Bettelheim, B. (1979, 40 or.): *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Barcelona: Crítica

ere, adierazgarri deritzogu ipuin bera edo haren aldaerak leku eta denbora anitzetan kontatzen direna baieztatuta ahal izateari.

5. Ondorioak

Antzorrilleta ahozko tradizioak ekarri digu. Ez dago ahozkoaren indarrak geroan nora jo dezakeen jakiterik, baina gaur arte, behintzat, iraun du. Aurrerantzerako, teknologian konfiantza izanda, esango dugu, kopia zaharra parafraseatuta: luzaro iraun baledi.

Aro eta gizarte diferenteetako gizakiek antzeko kontakizunak izan dituzte kontatzekotzat; horrek herrien, kulturen eta gizakion arteko kidetasunak bistaratzen ditu, giza izaera, beharrianak, emozioak, sentimenduak eta gizaki egiten gaituen eta berdintzen gaituen hitza, aurrean jartzen dizkigu.

6. Eskerrak

Marian Malleari ezagutzen ez nuen grabazioaren berri emateagatik.

Miriam Villasanteri bere ama zenaren grabazioen kopia eskuzabal eskaintzeagatik.

7. Bibliografia

- Arrieta Malaxetxebarria, Y. (2005): *Gatzaren atzetik-Mari-Xor*: Autorea editore.
- Azkue, R. M. (1989): *Euskalerraren Yakintza*. Madrid: Espasa-Calpe, L. G.
- Arratibel, J. (1995): *Kontu zarrak*. Donostia: Erein.
- Bettelheim, B. (1979): *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Barcelona: Crítica
- Kaltzakorta, X. Bizkaiko herri-ipuin idatziak. *Euskera* XXXVII (2. aldia): 477-496.
- Pelegrín, A. (2008): *La aventura de oír: Cuentos y memorias de tradición oral*. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes <http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmc9s263>
- Eizagirre, P. *Mari Xor 1, Mari Xor 2, Mari Xor 3, Mari Xor 4*, <http://pkeizagirre.podomatic.com/>
- Las tres hijas del rey <http://www.conmishijos.com/ocio-en-casa/cuentos/cuentos-infantiles/cuento-las-tres-hijas-del-rey.html> 2014-09-23 18:54
- Pedrero, V. *Le Bon Sel. Pour Une pincée de Sel* <http://veronique.pedrero.free.fr/> 2015-02-12, 13:06
- Sousa, A. C. *O rei e o sal* http://www.pequeninapoesias.com.br/contos/o_rei_e_o_sal.htm 2015-05-08 17:41

8. I. Eranskina: Antzorrilletaren audioa

Audio hau Columbia diskoetatik grabatutako zinta batetik aterata dago; hala ere, kalitatea irizpideari dagokionez, onargarriztat dugu.



3. irudia: *Antzorrilleta*

9. II. Eranskina: Antzorrilleta testuaren transkripzioak

Atal honetan *Antzorrilleta* ipuinaren hiru bertsiotz ipini ditugu. Lehenengo disko-azalaren barruko orrian idatzita zegoen testua eskaneatuta, bigarren testu bera transkribatuta eta, azkenik, testua gaurko idazkeara egokituta.

9.1. Disko-azalaren barruko testu eskaneatua

ANTZORRILLETA

Gizon bat bizi zan iru alabagaz. Zan bera adar-guna. Ta ez eukan mundu onetan beste pozik, beren emaztia Jainkoak eruan eutsan ezkeru, arexen alaben poza baiño. Ta egun baten esan eutsan alabari:

—Alabak, gauzatxu bat jakin gura neuke zeuengandik.

—Ba esan, aita, ia zer gura dozun jakin.

—Ba zenbat maitte nozuen. Ain maitte zaittuet neuk, ze jakin gura neuke zeuek be zenbat, zengat gura deustazuen neuri. Ia alabia, ba, zeu zarrena zara ta, zeuri lelengo, zeuri esaten deutsut: Zenbat gura deustazu?

—Ai, aita, asko, ain asko, ze zelan esan be eztakit.

Gero bigarrenari:

—Alabia, ta zuk zenbat gura deustazu?

—Ai, aita, nik be asko, asko be asko.

Eta gero irugarrena. Antzorrilleta zan beren izena. Eta aitak asko maitte eban, zalez txikitxuena. Esan eutsan:

—Antzorrilleta, zenbat maitte dozu zeure aita?

—Aita, nik gurra deutsut zuri, gatzak aragiari beste.

—Gatzak aragiari beste? Ori da zeure aitari egiteko berbetia? Baiña zelan esan deustazu ori? Zelan baiña? Eztaitut geiago etxe onetan ikusi gura neure begien aurrian. Urten egizu, urten egizu betiko etxe onetatik. Baiña arin be arin!

—Ene, aita, bat...

Ez, ez, esan deutsut, oraintxe urten egizu nere begien aurretik, etzaitudalako geiago ikusi gura emen.

Zer egingo eban ba Antzorrilletak? Bein ori entzun eban ezkeru, ba urten eban. Ia gaba be ba zan, billur billurrez, baiotan. Nora jun be ezekian. Ta olantxerik iolala bidian ziar, ikusi eban beste alderdian bide-zadortxu bat. Ta jun zan bertan ziar. Aldatzak be etorri zirian, ta baita an gora be igon, da jun da jun da jun, eldu zan mendi tontortxo batera.

Baiña ondiño izarratu ederra be baeguan gau aretan, ta ikusi eban andik urrintxuago, baserri etxe zuritxu bat. Ta egin eban ba ze: "Araxe etxera jun biarko dot ba nik, ze osterantzean, zelan pasauko dot ba, mendi onetan, bakarrik gaba? Jun, biar dot, bai, jun biar dot". El du zan etariera, ta deittu eban:

—Eeeup, eeeup!

Ta urten eban bertako etxeko andriak. Ta ikusi ebanian etxeko andra arek a neska gatzetxua saso aretan an, esan eutsan ze:

—Baiña zer jazoten yatzu, neskatilla? Zelan saso onetan zabiz emen bakarrik?

Ta esan eutsan beren goraberia, beren aitagaz zer jazo yakon. Eta andriak esan eutsan ba ze:

—Erdi ba bertora ba. Geugaz biziko zara.

Ta bertan geratu zan Antzorrilleta. Baiñan lagun-tren eutsan etxeko andriari etxeko zeregifak egiten, oilluck be gobernetan zittuen, baiña geienetan egiten eban biarra zan artzain, ardizain ibilizen zan.

* * *

Ta egunak jun ta egunak etorri, ba beti zan ardizain. Ta egun ba en, denpora eder bategaz, ikusi eban baldi eder baten ganian zelan datorren mutil gazte bat. Eta mutil ori, Antzorrilleta ain polita ikusita, geratu zan beraga berbatxu batzuk egiten. Ta urrengo eguna be etarro zan, tan mutilla bardin, Antzorrilleta ikusten. Ta Antzorrilleta pozik. A zan ba pozal Ezkian zer jazozen yakon. Baiña arek lekuek, lan ain tristatik begitant-en yakozanak, andik aurrera ikusten zittuen ain poliak, ain ederrak, ta bera bizi zan ain po-ik! Sasiak eurak be larrosak begitanten yakozan. "Baiña au da poza daukadana biri izatekol", egiten eban berak.

Ta egun baten esan eutsan mutillak:

—Antzorrilleta, gauzatxu bat esan bear deutsut.

—Ba esan, ba.

—Ai, Antzorrilleta, eztakizu asko zenbat gura deutsudan! Asko gura deutsut, Antzorrilleta! Eta zeuk neuri?

Ta Antzorrilleta loisatuta ixilik.

—Ai, Antzorrilleta, sarri zure begiak esan deuste maitte nozula. Ta esan egidazu orain berbaz, berbaz entrun gura deutsut, zeure aotik, maitte nozula.

Ta esan eutsan Antzorrilletak:

—Bai, egia da, maitte zaittut, zeugandik urrin ezta niganako pozik. Nire biotzan ezin leike besterik sartu. Maitte zaittut, bai.

—Ba, orduan, Antzorrilleta, esaten deutsut, ba, gura badozu neugaz erkundu. Gura dozu?

—Bai, ondo pozik, ondo pozik ezkonduko naz zuga, baiña zure moduko zaldun ederra eta aberastan nire begira?

—Bai, zeuri beggira. Zegaittik ba pentsetan izan dozu ni etorten nazala ain sarri zugana?... Ba orduan ezkontako eguna be izentau biarko dogu, ia ezta guak noz izango diran, ta abar.

Ta esan eutsan Antzorrilletak ze:

—Bai, ondo da, baiña nik gura neuke ba neure aita be eztegu aretara jun daitien.

—Ba zuk gura badozu, esango yako zure aitari, badakizu etxetik bialdu z. nduzana baiña.

—Bai, ba-dakit, baiña n'k maitte dot bai neure aita, eta nik parkatute dauket. Esatia nai dot.

Esan da iran. Esan eutsen aitari. Ta orretarako jana ipiñi biar ebenari esan eutsen Antzorrilletak:

—Danari egingo deutzue gatza, dan-danenari, baiña nire aitari aurrian ipintzen deutzuezen aragi-gauzeari, ez egin gatzik, e? Ba-dakizue.

Ta esan da iran, olantxerik egin eben.

Ta e't gua amaittu zanian, jun zan Antzorrilleta beren aitagana, ta esan eutsan:

—Zer eretxi deutzazu ba ezteguari? Ondo egon da, edo zer?

—Bai, ondo ederra izan da, baiña faltatxo bat euki dau.

—Zer falta ba, aita? Zer euki dau? Esan egidazu.

—Ba aragi-gauzeak ez dau gatzik euki.

—Ez ba, zugana ekarri daben aragi-gauzeak ezta gatzik euki, neuk olantxerik esan neutselako.

—Baiña zegaittik ba? Zelan egin dozu ori ba?

—Ba, ba daizu, aita, zelan, esan neutsunian gatxak aragiari beste gura neutsula, orixegaittik bakarrik, etxetik bialdu nendurun. Eztaukozu goguan, aita?

—Bai. Ondo goguan daukat. Ta oraintxe igerten dot, Antzorrilleta, zelan maitte dozun zeure aita.

9.2. Disko-azalaren barruko testuaren transkripzioa

ANTZORRILLETA

Gizon bat bizi zan iru alabagaz. Zan bera adarguna (sic). Ta ez eukan mundu onetan beste pozik, beren emaztia Jainkoak eruan eutsan ezker, árexen alaben poza baiño. Ta egun baten esan eutsan alabari:

—Alabak, gauzatxu bat jakin gura neuke zeuengandik.

—Ba esan, aita, ia zer gura dozun jakin.

Ba zenbat maite nozuen. Ain maite zaittuet neuk, ze jakin gura neuke zeuek be zenbat, zengat (sic) gura deustazuen neuri. Ia alabia, ba, zeu zarrena zara ta, zeuri lelengo, zeuri esaten deutsut: Zenbat gura deustazu?

—Ai, aita, asko, ain asko, ze zelan esan be eztakit.

Gero bigarrenari:

—Alabia, ta zuk zenbat gura deustazu?

—Ai, aita, nik be asko, asko be asko.

Eta gero irugarrena. Antzorrilleta zan bere izena. Eta aitak asko maite eban, zalez txikitxuena. Esan eutsan:

—Antzorrilleta, zenbat maitte dozu zeure aita?

—Aita, nik gurra (sic) deutsut zuri, gatzak aragiari beste.

—Gatzak aragiari beste? Ori da zeure aitari egiteko berbetia? Baiña zelan esan deustazu ori? Etxaitut gehiago etxe onetan ikusi gura neure begien aurrian. Urten egizu, urten egizu betiko etxe onetatik. Baiña arin be arin!

—Ene, aita, bat...

Ez, ez, esan deutsut, oraintxe urten egizu nire begien aurretik etzaitudalako geiago ikusi gura emen.

...

Zer egingo eban ba Antzorrilletak? Bein ori entzun eban ezker, ba urten eban. Ia gaba be bazan, billur billurrez, baioian. Nora jun be ezekian. Ta olantxerik ioiala bidian ziar, ikusi eban beste alderdian bide-zadortxu bat. Ta jun zan bertan ziar. Aldatzak be etorri zirian, ta baita an gora be igo, da jun da jun da jun, eldu zan mendi tontortxo batera.

Baiña ondiño izarratu ederra be baeguan gau aretan, ta ikusi eban andik urrintxuago, baserri etxe zuritxu bat. Ta egin eban ba ze: “Araxe etxera jun biarko dot ba nik, ze osterantzean, zelan pasauko dot ba, mendi onetan bakarrik gaba? Jun bihar dot, bai jun bihar dot”. El du (sic) zan etartera, ta deittu eban:

—Eeeup, eeeup!

Ta urten eban bertako etxeko andriak. Ta ikusi ebanian etxeko andra arek a neska gaztetxua saso aretan an, esan eutsan ze:

—Baiña zer jasoten yatzu, neskatilla? Zelan saso onetan zabiz emen bakarrik?

Ta esan eutsan beren goraberia, beren aitagaz zer jaso yakon. Eta andriak esan eutsan ba ze:

—Erdi ba bertora ba. Geugaz biziko zara.

Ta bertan geratu zan Antzorrilleta. Batian laguntzen eutsan etxeko andriari etxeko zereginak egiten, oilluek be gobernetan zittuen, baiña geienetan egiten eban biarra zan artzain, ardizain ibiltzen zan.

...

Ta egunak jun ta egunak etorri, ba beti zan ardizain. Ta egun baten, denpora eder bategaz, ikusi eban zaldi eder baten ganian zelan datorren mutil gazte bat. Eta mutil ori, Antzorrilleta Antzorrilleta hain polita ikusita, geratu zan beragaz berbatxu batzuk egiten. Eta hurrengo eguna be etorri zan, eta mutila bardin, Antzorrilleta ikusten. Eta Antzorrilleta pozik. Ha zan ba poza! Ez ekian zer jasoten jakon. Baina harek lekuak, lehen hain tristeak begitantzen jakozanak, handik aurrera ikusten zituen hain politak, hain ederrak, eta bera bizi zan hain pozik! Sasiak eurak be larrosak begitantzen jakozan. “Baina au da poza daukadana bizi izateko!”, egiten eban berak.

Eta egun baten esan eutsan mutilak:

—Antzorrilleta, gauzatxo bat esan behar deutsut.

—Ba esan, ba.

—Ai, Antzorrilleta, eztakizu asko zenbat gura deutsudan! Askok gura deutsut, Antzorrilleta! Eta zeuk neuri?

Ta Antzorrilleta lotsatuta ixilik.

—Ai, Antzorrilleta, sarri zure begiak esan deuste maitte nozula. Ta esan egidazu orain berbaz, berbaz entzun gura deutsut, zeure aotik, maitte nozula.

Ta esan eutsan Antzorrilletak:

—Bai, egia da, maitte zaittut, zeugandik urrin ezta niganako pozik.

Nire biotzian ezin leike besterik sartu. Maitte zaittut, bai.

—Ba, orduan, Antzorrilleta, esaten deutsut, ba, gura badozu neugaz ezkondu. Gura dozu?

—Bai, ondo pozik, ondo pozik ezkonduko naz zugaz, baiña zure moduko zaldun ederra eta aberatsa nire begira?

—Bai, zeuri beggira (sic). Zegaittik ba pentsetan izan dozu ni etorten nazala ain sarri zugana?... Ba orduan ezkontzako eguna be izentau biarko dogu, ia ezteguak noiz egiten diran, ta abar.

Ta esan eutsan Antzorrilletak ze:

—Bai, ondo da, baiña nik gura neuke ba neure aita be eztegu aretara jun daiten.

—Ba zuk gura badozu, esango yako zure aitari, badakizu etxetik bialdu zenduzana baiña.

—Bai, ba-dakit, baiña nik maitte dot bai neure aita, eta nik parkatute deuket. Esatia nai dot.

Esan da izan. Esan eutsen aitari. Ta orretarako jana ipini bihar ebenari esan autsen (sic) Antzorrilletak:

—Dánari egingo deutsezue gatza, dan-danenari, baiña nire aitari aurrian ipintzen deutsezuen aragi-gauzearik, ez egin gatzik, e? Ba-dakizue.

Ta esan da izan, alantxerik egin eben.

Ta eztegua amaittu zanian, jun zan Antzorrilleta beren aitagana, ta esan eutsan:

—Zer ereitxi deutzazu ba ezteguari? Ondo egon da, edo zer?

—Bai, ondo ederra izan da, baina faltatxo bat eduki dau.

—Zer falta ba, aita? Zer eduki dau? Esan egidazu:

—Ba aragi-gauzeak ez dau gatzik euki.

—Ez ba, zugana ekarri daben aragi-gauzeak eztau gatzik eduki, neuk olantxerik esan neutselako.

—Baiña zegaittik ba? Zelan egin dozu ori ba?

—Ba, ba daizu (sic), aita, zelan esan neutsunian gatzak aragiari beste gura neutsula, orixegaittik bakarrik etxetik bialdu nenduzun. Eztaukazu goguan, aita?

—Bai. Ondo goguan daukat. Ta oraintxe igerten dot, Antzorrilleta, zelan maitte dozun zeure aita.

9.3. Testua gaurko grafian

ANTZORRILLETA

Gizon bat bizi zan Hiru alabagaz. Zan bera alarguna. Eta ez eukan mundu honetan beste pozik, beren emaztea Jainkoak eroan eutsan ezker, harexen alaben poza baino. Eta egun baten esan eutsan alabari:

—Alabak, gauzatxu bat jakin gura neuke zeuengandik.

—Ba esan, aita, ea zer gura dozun jakin.

Ba zenbat maite nauzuen. Hain maite zaituet neuk, ze jakin gura neuke zeuek be zenbat, zenbat gura deustazuen neuri. Ea alabea, ba, zeu zaharrena zara-eta, zeuri lehenengo, zeuri esaten deutzut: Zenbat gura deustazu?

—Ai, aita, asko, hain asko, ze zelan esan be ez dakit.

Gero bigarrenari:

—Alabea, eta zuk zenbat gura deustazu?

—Ai, aita, nik be asko, asko be asko.

Eta gero hirugarrena. Antzorrilleta zan bere izerena. Eta aitak asko maite eban, zan lez txikitxuena. Esan eutsan:

—Antzorrilleta, zenbat maite dozu zeure aita?

—Aita, nik gura deutzut zuri, gatzak haragiari beste.

—Gatzak haragiari beste? Hori da zeure aitari egiteko berbetea? Baina zelan esan deustazu hori? Ez zaitut gehiago etxe honetan ikusi gura neure begien aurrean. Urten egizu, urten egizu betiko etxe honetatik. Baina arin be arin!

—Ene, aita, bat...

Ez, ez, esan deutzut, oraintxe urten egizu nire begien aurretik ez zaitudalako gehiago ikusi gura hemen.

...

Zer egingo eban ba Antzorrilletak? Behin hori entzun ebanez gero, ba urten eban. Ia gaua be bazan, bilur-bilurrez, bajoian. Nora joan be ez ekian. Eta holantxerik joiala bidean zehar, ikusi eban beste alderdian bide-zadortxu bat. Eta joan zan bertan zehar. Aldatzak be etorri ziren, eta baita han gora be igon, eta joan eta joan eta joan, heldu zan mendi tontortxo batera.

Baina hondino izarratu ederra be ba egoan gau haretan, eta ikusi eban handik urrintxoago, baserri etxe zuritxu bat. Eta egin eban ba ze: “Haraxe etxera joan beharko dot ba nik, ze osterantzean, zelan pasatuko dot ba, mendi honetan bakarrik gaua? Joan behar dot, bai joan behar dot”. Heldu zan etartera, eta deitu eban:

—Eeeup, eeeup!

Eta urten eban bertako etxeko andreak. Eta ikusi ebanean etxeko andra harek ha neska gaztetxoasasoi haretan han, esan eutsan ze:

—Baina zer jasoten jatzu, neskatila? Zelan sasoi honetan zabilz hemen bakarrik?

Eta esan eutsan beren gorabeherea, beren aitagaz zer jaso jakon. Eta andreak esan eutsan ba ze:

—Erdi ba bertora ba. Geugaz biziko zara.

Eta bertan geratu zan Antzorrilleta. Batean laguntzen eutsan etxeko andreari etxeko zereginak egiten, oiloak be gobernetan zituen, baina gehienetan egiten eban beharra zan artzain, ardizain ibiltzen zan.

...

Eta egunak joan eta egunak etorri, ba beti zan ardizain. Eta egun baten, denpora eder bategaz, ikusi eban zaldi eder baten ganean zelan datorren mutil gazte bat. Eta mutil hori, Antzorrilleta hain polita ikusita, geratu zan beragaz berbatxu batzuk egiten. Ta hurrengo eguna be etorri zan, eta mutila bardin, Antzorrilleta ikusten. Ta Antzorrilleta pozik. A zan ba poza! Ezekian zer jasoten jakon. Baina hareek lekuek, lehen hain tristiak begitantzen jakozanak, handik aurrera ikusten zittuen hain pólitak, hain éderrak, eta bera bizi zan hain pozik! Sasiak eurak be larrosak begitantzen jakozan.

“Baiña au da poza daukadana bizi izateko!”, egiten eban berak.

Eta egun baten esan eutsan mutilak:

—Antzorrilleta, gauzatxo bat esan behar deutsut.

—Ba esan, ba.

—Ai, Antzorrilleta, eztakizu asko zenbat gura deusudan! Asko gura deutsut, Antzorrilleta! Eta zeuk neuri?

Eta Antzorrilleta, lotsatuta, ixilik.

—Ai, Antzorrilleta, sarri zure begiak esan deuste maite nauzula. Eta esan egidazu orain berbaz, berbaz entzun gura deutsut, zeure ahotik, maite nauzula.

Eta esan eutsan Antzorriletak:

—Bai, egia da, maite zaitut, zeugandik urrin ez da niganako pozik. Nire bihotzean ezin leike besterik sartu. Maite zaitut, bai.

—Ba, orduan, Antzorrilleta, esaten deutsut, ba, gura badozu neugaz ezkondu. Gura dozu?

—Bai, ondo pozik, ondo pozik ezkonduko naiz zugaz, baina zure moduko zaldun ederra eta aberatsa niri begira?

—Bai, zeuri begira. Zegaittik ba pentsetan izan dozu ni etorten naizela hain sarri zugana?... Ba orduan ezkontzako eguna be izentatu beharko dogu, ia ezteguak noiz egiten diran, eta abar.

Eta esan eutsan Antzorriletak ze:

—Bai, ondo da, baina nik gura neuke ba neure aita be eztegu haretara joan daiten.

—Ba zuk gura badozu, esango jako zure aitari, badakizu etxetik bialdu zenduzana baina.

—Bai, badakit, baina nik maite dot bai neure aita, eta nik parkatuta daukat. Esatea nahi dot.

Esan eta izan. Esan eutsen aitari. Eta horretarako jana ipini behar ebenari esan eutsen Antzorriletak:

—Danari egingo deutsezue gatzak, dandananari, baina nire aitari aurrean ipintzen deutsezuen haragi-gauzeari, ez egin gatzik, e? Badakizue.

Eta esan eta izan, halantxerik egin eben.

Eta eztegua amaitu zanean, joan zan Antzorrilleta beren aitagana, eta esan eutsan:

—Zer ereitxi deusazu ba ezteguari? Ondo egon da, edo zer?

—Bai, ondo ederra izan da, baina faltatxo bat eduki dau.

—Zer falta ba, aita? Zer eduki dau? Esan egidazu:

—Ba aragi-gauzeak ez dau gatzik eduki.

—Ez ba, zugana ekarri daben haragi-gauzeak ez dau gatzik eduki, neuk holantxerik esan neutselako.

—Baina zegaittik ba? Zelan egin dozu hori ba?

—Ba, ba dakizu, aita, zelan esan neutsunean gatzak haragiari beste gura neutsula, horixegaittik bakarrik etxetik bialdu nenduzun. Ez daukazu gogoan, aita?

—Bai. Ondo gogoan daukat. Eta oraintxe igarten dot, Antzorrilleta, zelan maite dozun zeure aita.